



Memoria

2018

**Kabia foru organismo autonomoko Gobernu Batzordeak
onartua**

Donostia, 2019ko apirilak 30

AURKIBIDEA

1. ZERBITZUARI BURUZKO DATUAK	1
1.1. ZERBITZUAK	1
1.2. ERABILTZAILEAK	1
a) <i>Erabiltzaileen profila</i>	1
b) <i>Errotazioa</i>	4
c) <i>Okupazioa</i>	5
1.3. LANGILEAK ETA ZERBITZU ENPRESAK	6
a) <i>Plantillako langileak</i>	6
b) <i>Zerbitzu enpresak eta bere langileak</i>	6
2. BATERATZE PROZESUA ETA EGOITZA BERRIEN INTEGRAZIOA	7
3. KUDEAKETA PLANA.....	8
4. AURREKONTUAREN KUDEAKETA.....	13
4.1. GASTUAK.....	13
4.2. DIRU SARRERAK.....	14

1. ZERBITZUARI BURUZKO DATUAK

2018an Kabian hiru egoitza berri sartu ziren: Andoaingo, Bergarako eta Lasarte-Oriako egoitzak urtarrilaren batetik eta Ordiziako egoitza ekainaren batetik. Horren ondorioz, 2018an Kabiak zortzi egoitza kudeatu ditu ondorengo ezaugarriekin.

1.1. ZERBITZUAK

2018an Kabiak ondorengo zerbitzuak kudeatu ditu:

EGOITZA	OINARRIZKO PLAZAK	UPSI PLAZAK	EGOITZAKO PLAZAK GUZTIRA	EGUNEKO ZENTROA PLAZAK	TUTORETZAPEKO APARTAMENTUAK PLAZAK
ANDOAIN	95	-	95	-	-
AZKOITIA	54	14	68	20	12
BERGARA	81	18	99	-	-
ELGOIBAR	48	-	48	-	-
LASARTE-ORIA	42	15	57	25	-
VILLABONA	39	-	39	4	-
ORDIZIA	72	-	72	-	-
ZUMAIA	52	-	52	-	-
GUZTIRA	483	47	530	49	12

1.2. ERABILTZAILEAK

Kabiako erabiltzaileen profila honakoa da: 87 urte dituen emakumea da, mendekotasun handia duena.

a) Erabiltzaileen profila

Kabiak artatzen dituen pertsonen artean %69 emakumeak dira.

ZENTROA	ERABILTZAILE KOPURUA (ZERBITZU ETA SEXUAREN ARABERA)									
	ALDI BATERAKO EGONALDIAK		OINARRIZKO PLAZAK		EGUNEKO ZENTROA PLAZAK		UPSI PLAZAK		TUTORETZAPEKO APARTAMENTUAK PLAZAK	
	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G
ANDOAIN	4	1	94	29						
AZKOITIA			46	31	17	10	12	9	1	3
BERGARA			78	27			19	8		
ELGOIBAR			38	21						
LASARTE-ORIA			35	21	25	17	14	6		
ORDIZIA			68	24						
VILLABONA			30	15	4					
ZUMAIA			46	15						
GUZTIRA	4	1	435	183	46	27	45	23	1	3
%	80%	20%	70%	30%	63%	37%	66%	34%	25%	75%

(E) Emakumeak/ (G) Gizonak

Erabiltzaileen batz besteko adinari dagokionez, emakumeak gizonak baino zaharragoak direla nabarmentzen da.

ZENTROAK/ZERBITZUAK	2018/12/31	
	BATEZ BESTEKO ADINA	
	E	G
ANDOAIN	88	84
ALDI-BATERAKO EGONALDIA	86	81
EGOITZA	88	85
AZKOITIA	85	82
EGOITZA	86	81
EGUNEKO ZENTROA	84	82
UPSI	82	83
BERGARA	88	85
EGOITZA	88	85
UPSI	88	85
ELGOIBAR	87	83
EGOITZA	87	83
LASARTE-ORIA	86	84
EGOITZA	87	83
EGUNEKO ZENTROA	85	85
UPSI	88	84
ORDIZIA	89	81
EGOITZA	89	81
VILLABONA	89	81
EGOITZA	89	81
EGUNEKO ZENTROA	88	-
ZUMAIA	88	79
EGOITZA	88	79
BATAZBESTEKO ADINA GUZTIRA	87	83


(E) Emakumeak/ (G) Gizonak

2017ko datuekin alderatuz, orotara Kabiako zerbitzuak jasotzen dituzten erabiltzaileen batez besteko adina handitu dela nabarmendu daiteke.

BATEZ BESTEKO ADINA			
2017		2018	
E	G	E	G
86	82	87	83

(E) Emakumeak/ (G) Gizonak

Menpekotasun graduaren arabera, mendekotasun larria eta handia dutenen proportzioa handiagoa dela ikus daiteke. Mendekotasun larria dutenen proportzioa handitu da 2017ko datuekiko alderatuta.



Grafikoko datuak zentro, zerbitzu eta sexuaren arabera berezituz gero, kopuruak honakoak dira:

EGOITZA/ZERBITZUA	AUTONOMOAK (0)		NEURRIZKO MENDEKOTASUNA (1)		MENDEKOTASUN LARRIA (2)		MENDEKOTASUN HANDIA (3)	
	G	E	G	E	G	E	G	
ANDOAIN	2	8	8	44	11	46	9	
ALDI-BATERAKO EGONALDIA				2		2	1	
EGOITZA	2	8	8	42	11	44	8	
AZKOITIA		5	3	34	28	36	19	
EGOITZA		3	2	19	20	24	9	
EGUNEKO ZENTROA		2	1	8	5	7	4	
UPSI				7	3	5	6	
BERGARA		11	6	32	8	54	21	
EGOITZA		11	5	26	6	41	16	
UPSI			1	6	2	13	5	
ELGOIBAR	1	3	3	16	9	19	8	
EGOITZA	1	3	3	16	9	19	8	
LASARTE-ORIA	1	11	11	32	14	31	18	
EGOITZA	1	5	6	17	7	13	7	
EGUNEKO ZENTROA		6	5	10	4	9	8	
UPSI				5	3	9	3	
ORDIZIA		7	4	26	13	35	7	
EGOITZA		7	4	26	13	35	7	
VILLABONA	1	4	4	9	6	21	4	
EGOITZA	1	4	4	7	6	19	4	
EGUNEKO ZENTROA				2		2		
ZUMAIA		3	3	21	10	22	2	
EGOITZA		3	3	21	10	22	2	
GUZTIRA	5	52	42	214	99	264	88	
%	%100	%55	%45	%68	%32	%75	%25	

(E) Emakumeak/ (G) Gizonak

b) Errotazioa

Zerbitzu bakoitzean egon diren altak (sarrerak) eta bajak (irteerak) ondorengo taulan jasotzen dira:

EGOITZA/ZERBITZUA	ALTAK			BAJAK		
	E	G	GUZTIRA	E	G	GUZTIRA
ANDOAIN	30	8	38	30	8	38
ALDI-BATERAKO EGONALDIA	4	1	5	4	1	5
EGOITZA	26	7	33	26	7	33
AZKOITIA	23	20	43	20	18	38
EGOITZA	14	10	24	14	9	23
EGUNEKO ZENTROA	7	4	11	4	4	8
UPSI	2	6	8	2	5	7
BERGARA	21	12	33	29	10	39
EGOITZA	16	8	24	21	8	29
UPSI	5	4	9	8	2	10
ELGOIBAR	6	5	11	7	4	11
EGOITZA	6	5	11	7	4	11
LASARTE-ORIA	24	18	42	25	12	37
EGOITZA	8	7	15	11	3	14
EGUNEKO ZENTROA	11	8	19	11	6	17
UPSI	5	3	8	3	3	6
ORDIZIA	17	6	23	17	5	22
EGOITZA	17	6	23	17	5	22
VILLABONA	5	2	7	4	2	6
EGOITZA	5	2	7	4	2	6
EGUNEKO ZENTROA						
ZUMAIA	9		9	10	1	11
EGOITZA	9		9	10	1	11
GUZTIRA	135	71	206	142	60	202
%	66	34	100	70	30	100

(E) Emakumeak/ (G) Gizonak

Zerbitzua uztearen arrazoiak heriotza, beste zerbitzu edo egoitza batetara aldatzea edo borondatez zerbitzua uztea izan dira. Arrazoi guztien artean heriotza izaten da nagusitzen dena.

c) Okupazioa

Zentro bakoitzeko zerbitzuen okupazioa honakoa izan da:

EGOITZA/ZERBITZUA	%
Andoain	
Egoitza	98%
Azkoitia	
Eguneko zentroa	79%
Egoitza	99%
UPSI	99%
Bergara	
Egoitza	99%
UPSI	99%
Elgoibar	
Egoitza	99%
Lasarte	
Eguneko zentroa	89%
Egoitza	99%
UPSI	98%
Ordizia	
Egoitza	98%
Villabona	
Eguneko zentroa	100%
Egoitza	100%
Zumaia	
Egoitza	99%
Guztira	98%

Azkoitiako egoitzan udal eskumenekoak diren apartamentu tutelatuak kudeatzen dira. 12 plaza daude, 4 apartamentutan banatuak. Guztira, 4 erabiltzaile daude, beraz, okupazioa oso txikia da, %33koa hain zuzen.

1.3. LANGILEAK ETA ZERBITZU ENPRESAK

a) Plantillako langileak

Egoitza berriak sartzearekin, Kabiako plantillako langile kopurua nabarmenki handitu zen.

Lan zentroak (2018/12/31)	Plantillako langileak guztira
Zerbitzu zentralak (Donostia)	9
Andoain	13
Bergara	21
Ordizia	14
Zumaia	3
Guztira	60

2018ko urtarrilaren 1etik aurrera Andoain, Bergara eta Lasarteko egoitzak eta ekainaren 1etik Ordiziako egoitzak Kabian egoteak, Zerbitzu Zentraletako lan karga areagotu zuen. Lan karga horri aurre egite aldera, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera Zerbitzu Zentraletan goi teknikari juridiko bat dago. Halaber, otsailaren hasieratik, Andoaingo egoitzako administratzailea Zerbitzu Zentraletan dago lanean, ekainetik arkitekto tekniko bat eta irailetik langile kudeaketa arloko administrari berri bat. Orotara, bederatzi langile zeuden zerbitzu zentraletan 2018 urtearen amaieran.

b) Zerbitzu enpresak eta bere langileak

Kabiako egoitzetan arlo asistentzialari dagokionez, honako zerbitzu enprekin kontratuak daude:

- o Elgoibar eta Azkoitiako egoitzetan, Biharko Gipuzkoa SL enpresa dago egoitzaren kudeaketan.
- o Lasarte-Oriako egoitzan, CLECE S.A. enpresa dago egoitzaren kudeaketan.
- o Villabonako egoitzan Aita Menni Zerbitzu Sozialak SL.
- o Bergarako, Ordiziako eta Zumaiako egoitzetan, aldiz, Eulen Servicios Sociosanitarios S.A. (asistentzia zerbitzuak eta zerbitzu osagarriak) eta Lahar Elkarteak (zerbitzu psikosoziala) kontratu zerbitzuak dituzte.

Enpresa horien bitartez guztira lanaldi osoko 471 langile baliokide daude (langile kopuru erreala handiagoa da lanaldi osoak ez dituztelako kasu guztietan). Horietako %91 emakumeak dira. Gizonak, daudenean, eginkizun ez-asistentzialetan (mantenua, konponketak, sukaldaritza, biltegia, etb.) jarduten dira.

2. BATERATZE PROZESUA ETA EGOITZA BERRIEN INTEGRAZIOA

2018an Kabian beste lau egoitza berri integratzea aurreikusita zegoen: Arrasate, Errenteria, Oñati eta Tolosa. Hori dela eta, Gizarte Politikako Departamentuko eta Kabiako ordezkariak urte osoan zehar udaletako eta egoitzetako arduradun politiko eta teknikoekin harremanetan egon dira integrazio prozesu hori aurrera eramanez, aurreko urteetan egindako lanari jarraipena emanez. Halaber, Kabiako komunikazio planaren eremuan, egoitzetako langile, erabiltzaile eta familiak eta zerbitzu enpresak eta bestelako hornitzaileekin harremanak izan dira integrazioa zela eta aurreikusten ziren aldaketen berri emateko eta zalantzak eta bestelako gaiak argitzeko.

Prozesu horren ondorioz, 2018ko abenduak 27an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak bi hitzarmen sinatu zituen Oñati eta Errenteriako udal egoitzak Kabia integratu zitezela 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera; beste biak, 2019ko apirilak 1ean integratu dira. Guzti horrek, 2018ko azken hilabeteetan Kabian antolaketan, kudeaketan eta lan kargan ondorio batzuk izan ditu; bereziki ezinbestez hasieratik egokitu eta bateratu beharreko arloei zegokienez, hala nola: langileen kudeaketa arloan, sistema informatikoetan, kontabilitatean, etab. Gainera, udal horiekin hartutako konpromisoaren arabera, hitzarmenen eragin ekonomikoa 2018ko uztailaren 1etik aurrerakoa izan da.

2018. urtean zehar bateratze prozesuarekin jarraitu da. Hasitako proiektuen artean Resiplus Korporatiboa aipatu behar da, erabiltzaileen kudeaketarako den aplikazioa zentralizatu eta bateratzeko garaian, asistentzia arloko prozedura komunak zehaztu eta adosteko oinarritzkoa izango baita.

Proiektua abian jarri zen Kabian dauden eta egongo diren egoitzetako ordezkariak zuzendutako komunikazio ekintza baten bitartez. Antolaketari begira, hainbat lan talde eratu dira koordinazio taldearen ardurapean. Proiektuaren garapena 2019 eta 2020ean zehar jarraitzea aurreikusita dago, barne hartzen dituen bi ildo nagusiak garatzeko beharrezkoa izango baita:

1. Azpiegitura komuna izateko beharrezko inbertsioa eta antolaketa.
2. Prozedura eta lan egiteko modu komunak adostea.



Hizkuntza berdintasunari dagokionez, Combi proiektuaren eremuan (Migratzaileek eta desabantaila egoeran dauden ikasleek testuinguru elebidunetan lan egiteko gaitasun komunikatiboak lantzea helburu duena), Kabiako ordezkari bat Estrasburgo Parlamentuan izan zen proiektuaren eta "Kabian hizkuntza berdintasuna kudeatzeko jarraibidea"ren aurkezpena egiten. Halaber, 2018ko ekainean Palermon (Sicilia) Combi proiektuari buruz izandako jardunaldi batean ere izan zen.

Bestetik, zerbitzua ematen duten enpresetako langileen motibazioa handitze aldera, Kabia HABE eta Aldundiko Hizkuntza

Berdintasuneko Zuzendaritzako kideekin elkarlanean ari da proiektu berri bat gauzatzeko, euskarako ahozko gaitasunaren aitortzara bideratuta dagoena.



3. KUDEAKETA PLANA

Aurreko ekitaldietako joera jarraituz, 2018an ere kudeaketa planaren jarduera nagusienak egoitzak integratzeko urratsak ematera bideratu dira; beharrezko informazioa bilduz eta integrazioak dituen hainbat arlotako aplikazio, sistema eta prozesuak egokitu eta prestatuz integrazio hori ahalbidetze aldera. Sektoreko eragile komunikazio eta koordinazioa egitea oinarritzkoa izan da ere bai.

Kudeaketa planean guztira 46 proiektu eta ekintza aurreikusi ziren. Betetze mailari dagokionez, ondorengo taulan proiektu bakoitzaren egoera ezagutu ahalko da:

Kudeaketa planeko ekintzen betetze maila ulertzeko, koloreek ondorengo esanahia dute:

■ Ez da egin ■ Hasi da, amaitu gabe ■ Egina

2018 URTEKO HELBURUAK	PROIEKTUAK	EKINTZAK	BETETZE MAILA
ERABILTZAILAK			
Erabiltzaile eta familien partehartzea landu	Erabiltzaileen asebetetze galdetegi eredu bateratua adostu	Erabiltzaileen asebetetze galdetegi eredu bateratua adostu Gizarte Politikako Departamentuarekin elkarlanean	
Osakidetza eta Osasun Sailarekin sinatzeko hitzarmena adostu	Osakidetzarekin egoitzek sinatutako hitzarmenak aztertu eta Kabiako eredia definitu		
Kabian dauden egoitzetarako jarraibide komunak definitu	Egoitzetako barne araudia adostu	Egoitzetako barne araudia eta kontratua adostu	
PERTSONAK (LANGILEAK)			
Kabiako langileen ordezkaritzarekiko dituen betebeharrak zehaztu	Langileen ordezkaritza: legearen arabera Kabiaren betebeharrak zehaztu eta irizpideak adostu		
Zerbitzu zentraletako langile beharrak eta egitura definitu	Zerbitzu zentraletako egitura organikoa osatzen joan		
Egoitza bakoitzaren langileen kosteak identifikatu eta katalogoarekin alderatu	Egoitzetako eredia definitu	Eredua definitzeko proiektua garatu	
Kabian sartzen diren langileen integrazioa lortu ereduarekin bat eginez	Kabiako langileen integrazioa lortu ereduarekin bat eginez		
Langileen trebetasuna handitu eta erabiltzaileen beharretara bideratu	Langile propioen prestakuntza irizpideak definitu	Prestakuntza irizpideak eta prestakuntza plana osatzeko prozesua definitu eta adostu	
	Urteko prestakuntza plana	Urteko Prestakuntza plana egin eta garatu	
Kabiako prebentzio plana garatu eta gauzatu	Egoitzetako prebentzio planak eta Kabiakoak bateratu	Kabiako prebentzio plana eta egoitzena bateratu	
Langile propioen kudeaketa antolatu	Langile propioen kudeaketa antolatu	Langileen kudeaketa arloa antolatu (nominen kudeaketa, ordezkapenak, ...etb.)	

2018 URTEKO HELBURUAK	PROIEKTUAK	EKINTZAK	BETETZE MAILA
KUDEAKETA			
Gora beheren kudeaketa egokia egin	Gorabeheren kudeaketa prozedurak bateratu eta adostu		
Koordinazio guneak definitu eta garatu	Zerbitzu zentraletako eta egoitzetako koordinazio guneak definitu eta egokitu		
Kudeaketa ekonomiko egokia egin eta jarraipena egin helburuak lortzeko	Emaitzetara zuzendutako aurrekontua eredura egokitu	Aurrekontuaren jarraipen zorrotza egin	
Kontratuen urteko plana egin eta garatu	Kontratazio deialdien urteko plana egin	2018ko Kontratazio deialdien urteko plana egin eta aurrera eraman, Kabian ez dauden egoitzekin elkarlanean	
Kontratuen jarraipena egin	Kontratuen jarraipen prozesua adostu, pleguetan jaso, zabaldu eta abian jarri	Kontratuen jarraipen prozesua adostu, pleguetan jaso, zabaldu eta abian jarri	
Segurtasun juridikoa bermatu	2018an Kabian sartuko diren egoitzen integrazio prozesuaren plana egin eta gauzatu		
Kudeaketa hobetze aldera, Kabiako organoen eskumenen delegazioa egin	Kudeaketa hobetze aldera, Kabiako organoen eskumenen delegazioa zehaztu eta adostu	Kudeaketa hobetze aldera, Kabiako organoen eskumenen delegazioa zehaztu eta adostu	
Sarrera eta irteera erregistroaren irizpideak adostu	Erregistroaren irizpideak adostu	Kabiakoa sarrera eta irteera erregistroaren erabilera eta erabiltzaileak definitu eta abian jarri	
Administrazio elektronikora egokitzea	Administrazio elektronikora egokitzeko plana	Eusko Jaurlaritzako kontratatzaile profileria eta jakinarazpen elektronikora egokitzea	
Zerbitzu zentraletarako behin betiko egoitza lortu	Zerbitzu zentralak behin betiko egoitzara egokitzeko urratsak eman	Miramongo lokala zerbitzu zentraletako beharren arabera egokitu eta kokatu	
Kabiako kudeaketa sistema eta egoitzetako bateratzea	Kabiako kudeaketa sistema eta egoitzetako bateratzea	Prozesu operatibo bateratuak definitu eta egokitu: kontabilitatea eta tarifatik kanpokoko zerbitzuak	
Kabiako egoitzen IKT sistema komuna definitu eta ezarri	Langileak kudeatzeko Meta4 aplikazioa egokitzen joan	Nominen atala abian jarri	
Aginte koadroa diseñatu	Adierazle nagusiak identifikatu, adostu eta neurtu	Adierazle nagusiak identifikatu eta adostu	
IRAUNKORTASUNA ETA BERRIKUNTZA			

2018 URTEKO HELBURUAK	PROIEKTUAK	EKINTZAK	BETETZE MAILA
Kabiako egoitzen IKT sistema komuna definitu eta ezarri	Kabiako RESIPLUS Korporatiboa abian jarri	Kabiako RESIPLUS korporatiboa diseñatu, irizpideak adostu eta Kabiako egoitzetan abian jarri	
Kabian dauden egoitzen inbertsio beharren azterketa egin eta gauzatu	Inbertsioetako urteko plana egin eta garatu	Inbertsioetako urteko plana egin eta garatu	
Kabian dauden egoitzen mantentze beharren azterketa egin eta gauzatu	Mantentze urteko plana egin eta garatu	Mantentze urteko plana egin eta garatu	
Inbertsio eta mantentze planak egiteko prozesua eta irizpideak zehaztu eta adostu	Inbertsioetako eta mantentze urteko plana egiteko prozesua zehaztu eta adostu		
Kabian dauden egoitzen inbentarioa egin	2018an sartuko diren egoitzen inbentarioa jaso eta egoeraren diagnostikoa egin		
Auditoretza energetikoak egin	Egoitzetan auditoria energetikoak egin		
Ingurumenaren kudeaketaren aldeko inbertsioak egin	Urteko inbertsio planean auditoritza energetikoko ekintzak txertatu		
Kabiako egoitzetan IKT arkitektura komuna definitu eta egokitu	Integratuko diren egoitzak Kabiako IKT sistemara egokitu	Prozedura adostu eta dokumentu batean jaso	
		Egoitzetako IKT planak prestatu eta ezarri	
Informazio segurtasuna bermatu	Kabiako informazio segurtasun sistema	Kabiako egoitzetako fitxategiak definitu eta erregistratu.	
		Dokumentu formalizatuetakako informazio klausulak egokitu	
Kabiako egoitzetan IKT arkitektura komuna definitu eta egokitu	Egoitzetako (windows) sareko karpetak antolatu eta kudeatzeko irizpideak adostu		
Familien parte-hartzea sustatu	Erabiltzaile eta familien parte hartze eredua eta prozedura definitu	Egun dauden ereduak bildu, aztertu eta eredua eta prozedura bateratua adostu	
Barne komunikazio gardena lortu	Komunikazio plana diseinatu eta garatu: aliatu eta interes taldeei zuzendua	Komunikazio plana diseinatu eta garatu	
Kabiako egoitzen IKT sistema	kabia.eus web gunea egokitu	kabia.eus web gunean GFAko formatura egokitu	

2018 URTEKO HELBURUAK	PROIEKTUAK	EKINTZAK	BETETZE MAILA
komuna definitu eta ezarri			
GIZARTEA			
Hizkuntza berdintasuna KABIAN txertatu	Zerbitzuan hizkuntza berdintasuna bermatzeko urratsak eman	Irakatsi eta ikasteko metodologia berrien garapenean parte hartu	
	Zerbitzuan hizkuntza berdintasuna bermatzeko urratsak eman	Lanbide heziketarekin batera esperientzia pilotu bat diseinatu eta garatu	
	Ebaluazio tresna eta metodologia	Ebaluazio tresna eta metodologia diseinatu	
Emakume eta gizonen berdintasuna KABIAN txertatu	Berdintasuna Kabiaren eremuan, kudeaketan eta lizitazioetan txertatu	Berdintasuna Kabiaren eremuan, kudeaketan eta lizitazioetan txertatu	
Kabiara sartu diren egoitzek herritarrekin dituzten ekintzak mantendu	Kabiara sartu diren egoitzek herritarrekin dituzten ekintzak mantendu eta udalaren elkarlana bermatu	Ekintzak bateratu eta Kabiako ordezkariak bermatzeko irizpidea adostu	
Kabiako irudi korporatiboa bateratu	Kabiako irudi korporatiboa bateratu	Kabiako irudi korporatiboa dokumentu batean jaso eta zabaldu	
Kabiako web gunea eduki berriak txertatu	kabia.eus web guneko edukiak zabaldu	Egoitzei buruzko informazioa atal bat txertatu	

4. AURREKONTUAREN KUDEAKETA

4.1. GASTUAK

Kabia foru organismo autonomoan, 2018. urtean zehar egindako gastuen banaketa beheko taulan ikus daiteke.

KAPITULUA	HASIERAKO AURR.	BEHIN BETIKO. AURR.	ONARTUTAKO OBLIGAZIOAK	
			€	%
1. Langileria gastuak	4.120.164	4.120.164	2.655.480	64,17
2. Ohiko gastuak	25.372.962	25.372.962	16.443.894	64,81
6. Inbertsio errealak	850.000	850.000	273.719	32,20
Gastuak guztira	30.343.126	30.343.126	19.373.093	63,85

Aurrekontuaren likidazioari dagokionez, aurrekontuaren %63,85 erabiltzearen arrazoi nagusiena honakoa izan da: 2018an Kabian lau egoitza integratzea aurreikusia zegoen eta aurrekontuan jasota. Udalekin izandako negoziazio prozesuaren ondorioz, Oñati eta Errenteriako egoitzetako defizita 2018ko uztailaren 1etik aurrera ordaintzeko konpromisoa hartu zen: Oñati 55.000€ eta Errenteria 530.000€ inguru. Defizitaren likidazio hori, ordea, ez zuen Kabiak bideratu Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak baizik.

Seigarren kapituluaren egindako gastua aurrekontuaren %32,20 izan da, proportzioan kapitulu guztien artetik txikiena. Inbertsioak ez egitearen arrazoiak ez da izan beharrak ez egotea. Alderantziz, beharrak oso handiak dira, egoitzen egoera dela eta. Zailtasunik nagusiena honakoa da: inbertsio horiei aurre egiteko egin beharreko tramitazioa eta kontratazioa bideratzeko gaitasuna ez izatea Kabiako Zerbitzu Zentraletan dagoen lan karga dela eta.

Hurrengo taulan ikus daitekeen moduan, 2018an oraindik Kabian integratuta ez zegoen Errenteriako egoitzan inbertsioak egin dira, zehazki zeuden ekipo eta sare informatikoa egokitzea zuzendutakoak, oso zaharkituak zeudelako.

Inbertsioak	Eraikuntzak	Makineria eta Tresneria	Altzariak	Informatikarako ekipamenduak	Guztira
Andoain		41.095,10			41.095,10
Azkoitia		4.303,37			4.303,37
Bergara		3.995,00	1.520,20		5.515,20
Elgoibar	17.352,61	10.370,80			27.723,41
Errenteria				12.235,70	12.235,70
Ordizia		43.259,98			43.259,98
Villabona	47.970,83	17.455,32	3.599,75		69.025,90
Zerbitzu Zentralak			5.815,19	2.808,70	8.623,89
Zumaia		14.777,33			14.777,33
Guztira	65.323,44	135.256,90	10.935,14	15.044,40	226.559,88

Inbertsioetarako gainontzeko kopurua (47.159,30 euro) Kabiako garapen informatikoko proiektuetara zuzendu da.

Azkenik, inbertsioei dagokionez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentua eta Kabiaren artean sinatutako lankidetzaren hitzarmena aipatu behar da, zeinaren xedea zen Bergarako adineko pertsonentzako egoitzaren energia sortzeko sistema birmoldatzeko obrak finantzatzea eta burutzea. 2018ko urtean obraren kostu zenbatetsia 178.715 euro (BEZ barne) aurreikusi zen, eta Kabiak erdia finantzatu zuen. Goiko taulan ez agertzearen arrazoia honakoa da: Kabiak bere gain hartzen duen ekarpena Gizarte Politikako Departamentuak egin behar duen ekarpenetik egin zelako.

4.2. DIRU SARRERAK

Kabiak, 2018. urtean izandako diru sarrerak beheko taulan jasotzen dira:

KAPITULUA	HASIERAKO AURR.	ONART. ESKUBID. GARBIAK	
		€	%
3. TASAK ETA BESTELAKOAK	10.383.166	7.316.670	70,47
4. TRANSF. ARRUNTAK	19.109.960	13.101.532	68,56
7. KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	850.000	300.000	35,29
SARRERAK GUZTIRA	30.343.126	20.718.202	68,28